

María Victoria Sánchez-Bravo

«Ez dut nahi nire neba José Luisen izena garbitu besterik»

María Victoria Sánchez-Bravo Sollak badu iloba bat bost izen dituen: Luisa Ramona Humberta Anjela Juana da. 1975eko irailaren 27an Franco diktadoreak fusilatu zituen bost borrokalarien izenak daramatza neskak. José Luis Sánchez-Bravo Solla fusilatuaren arreba María Victoriak ez du inoiz ahaztuko.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

1975eko irailaren 27an Txiki eta Otaegi fusilatu zituztenean fusilatu zituzten José Luis Sánchez-Bravo, Xose Humberto Baina eta Ramón García Sanz.

Trantsizio garaian, dena ezkutuan gordetzea, dena ahaztea erabaki zuten orduko alderdiek, Alderdi Sozialistak, Alderdi Komunistak... eta orain nori erreklamatu behar diot neba hil zidate-la? Espainian gertatzen dena lotsamangarria da, ez da inon gertatzen. Horra eskuin muturreko jendea, falangistak, kalera irten eta jendea joka, laidoztatzen, edo hiltzeko mehatxua egiten, Madrilen alkate [Manuela] Carmena-ri bezala. Eta zigorrik ez. Ez naiz Kata-luniaren independentziaren aldekoa, baina ez zait buruan sartzen erreferen-dumaren antolatzaileak kartzelara sar-tzea. Aldiz, lapurreta betearen ari direnak, jendea jotzen, izuarazten... ez dute zi-gorrik. Non da justizia? Espainiatik alde egin nahi dut! Sumintzekoa da jendeak behin eta berriz horiexei ematea botoa. Nazkagarria da.

Galiziatik zatoz, Vigon hazi zineten.

Galiziarrek gara amaren aldetik, ma-drildar jatorrikoa genuen aita. Etxean bigarrena nintzen, hirugarrena zen José Luis, ni baino urte eta erdi gazteago. Ni 18 urterekin ezkondu eta etorri nintzen Murtziara, senarra hemengoa eginda. Artean, Luis, edo Luisiño, institutuan ari zen. Garai hartan ohi zenez, etxean ez zen politikaren gainean hitz egiten. Frankismoa zen. Geroko batean jakin nuen neba politikan sartuta zegoela.

Ezkondu zinen, gurasoen etxea utzi, etxekoekin harremana tartekatatu. Urte batzuetara, zuregana jo zuen José Luisek.

Hil aurreko udan. Haurdun zuen emaz-tegaia eta ezkondu egin nahi zuten. Luis nirekin harremanetan jarri zen, nik Vi-gora beraren jaiotza-agiria eskatzeko, ezkondu ahal izan zitezen. Ordurako, ihesi zebilen Luis. Vigoko fabrika batean panfletoak banatzea leporatu zioten. Polizia gure etxera etorri baino lehen ihes egin zuen. Ama guztiz jota geratu

zen, ez zuen Luisen berririk izan bi ur-tean. Neba nirekin harremanetan jarri zenean jakin zuen gure amak Luis Ma-drilen zebilela. Atzetik zebilkion Briga-da Politiko Soziala, ez *sí* eta ez *no* tiroa

María Victoria Sánchez-Bravo

1952, Vigo, Galizia

Arte dramatiko irakasle, oraindik orain sartu da erretretan. 18 urte bete eta ezkondu zen Vigotik Murtziara. Ordurako hila zuen aita. "Ez zuen gerokorik ikusi, zorionez", esana du María Victoriak, aitzak ez baitzuen bizi izan María Victoriak bizitakoa: José Luis fusilatu zutela. Harrezkero, neba José Luisen eta harekin batera fusilatu zituzten lagunen memoriaren zaindari jardun du María Victoriak. Memoriaren institutu osoa da, bera bakarrik, María Victoria Sánchez-Bravo Solla.



jotzen zizun polizia hura, edo polizia-etxera eraman eta torturatzen zintue-na. Hori ez da kontatzen. Ez PSOEek, ez PCEk esaten dute zer gertatzen zen ga-rai hartan.

Neba torturatu zutela ikusi zenuen.

Bertatik bertara. Hebain-hebain egin zuten, odola egiten zuen txizatan, soina belztua zuen, aurpegia desitxuratua. Eta nola liteke tortura haien arduraduna, bizi baita oraindik, kalean libre ibiltzea? Lotsamangarria da. Nirekiko, dena den, PPK bezainbat kulpa dute, edo handia-go, ezkerreko omen diren alderdiek, dena ezkutuan gorde nahi izan baitute. Ezagutzen dugu Alderdi Popularra, non-dik datorren, nora doan, baina ezker-ra isilik egotea? Lotsamangarria! Herria engainatzen ari dira.

Ezkondutuen ondoren, Murtzian, zure etxean izan zenituen Silvia eta Luis, iheslari.

Gure etxe batean bi egun eman zituzten, eta Mazarrón (Murtzia, Espainia) herrira joan ziren gero. Eta [Antonio] Pose guardia zibiletako tenientea hil zutenean Madrilen [1975, abuztuak 17], neba Murtzian zegoen Silviarekin. Nik banuen auto xahar bat, baina ez zebilela eta taxia hartu genuen Luisek, Silviak eta hirurok Murtziatik Mazarrónera joateko. Poseren hilketan parte hartu zuela leporatu ziotenean, taxilariari eskatu nion lekukotasuna emateko, adierazteko nola egin jakin batean eraman gintuen hirurok Murtziatik Mazarrónera. Neba ez zuten hilketaren egile material izateaz akusatatu, baina akabatu egin zuten, hala ere. Txikitu egin zuten, eta txikitu egin gintuzten.

Familia, esan nahi duzu.

Gure familia txikitu zuten. Beste neba batek, Manuel Anjelek, bere buruaz beste egin zuen handik urte batzuetara. Hirugarren solairu batetik bota zuen bere burua: hankak hautsi zituen, eta ospitalean eman zuen uda. Ondoko urtean ez zuen huts egin. 1983ko uztailearen 5ean bederatzigarren batetik bota zuen bere burua. Manuel Anjelek ez zuen anaia galtzeak ekarri zion mina gainditu. Carabancheleko kartzelan (Madril, Espainia) eman genuen gau-kaperan gelditu ere ez zen egin Manuel Anjel. Haren sufrikarioa, haren inpotentzia. Eskuak erre zituen zigarroekin... Gorriak ikusi zituen, ez zuen beste anaiarik, arrebak

Tarancón

“Orain Espainiako errege-erregina emeritu direnei telegramak bidali nizkien, eta [Vicente Enrique] Tarancón kardinalarekin hitz egiten ere saiatu nintzen. Gau osoa eman nuen haren jauregiaren atarian, errezibitu zain, beste kondenatu baten ahizparekin. Tarancónen *Mercedes* beltz handiaren aurrean ere paratu ginen. Aita santua Madriler-a etortzeko eskatzen genuen, Franco eskomikatzea. Baina diplomazia nagusitu zen, eta horrela hil zituzten bostak”

Zakurrak oinutsik ez

“Lehenengo batean, lagun batekin alderdi politikoen gainean ari ginela, leku guztietan zakurrak oinutsik direla esan zidan. Baina ez da egia. Batzuk lapurreta bizian ari dira. Beste batzuk, aldiz, etxerik gabe daudenen alde ari dira, dirurik ez dutenen alde lanean. Ez, ez, leku guztietan zakurrak oinutsik ez”

Podemos

“Podemos-en sartu nintzen, ustez hortik onik etorriko zelakoan, baina ez da etorri. Asmoa zuzena zen, baina gizakiak huts egin du. Manuela Carmena, Ada Colau... miresgarriak zaizkit, baina zaila da inork besteren ongiaren alde bere burua erabat eskaintzea. Botereak usteldu egiten du gizakia, askok esan dute nik baino lehen, eta ez da gezurra”

besterik. Nire ahizpa Dolores Fek ere inoiz ez zuen burua jaso. Depresioak jo zuen, pastillaz bete zuten, eta horrelaxe lehertu zen. 1975ean hil zuten José Luis, 21 urterekin; 1983an egin zuen bere buruaz beste Manuel Anjelek, 25ekin; hirugarrena, Dolores Fe izan, 33 urte zituela hila...

Zer diozu gurasoen minaz?

José Luis zen etxean amari gehien la-guntzen ziona. “Ez dut bera bezalako seme-alabarik izan”, zioen gure amak, “Eta kendu egin didate”. Min horrekin bizi izan zen hil artean. Murtziara ekarri nuen bizitzera, nire altzora. Noizean behin esaten zidan: “Zer egiten dut nik bizirik munduan?”. Bera bizirik, eta hiru seme-alaba hilik. Ez zitzaion buruan sartzen. Orduan, nik esaten nion: “Ama, behar zaitut!”. Laguntza behar nuela esaten nion, bestela alde egingo zidala iruditzen zitzaidan, ez baitzuen bizi-tzeko gogorik. Latza izan da, latza, eta azkenean libre irten dira arduradunak, hemen ez da ezer gertatu, zigorrik ez da ezarri, ahaztu egin behar zela esan zuten, ezin zitekeela besterik egin. Behar-bada, garai hartan ezin zitekeen bestela izan, baina gero ere ez? Garbiketa egin behar zen, eta krimen haien arduradunak epailearen aurrera eraman, eta Espainian ezin bada, Espainiatik kanpora.

José Luis eta beraren emazte Silvia Carrerero Murtziatik Madriler-a itzuli ziren. Hurrena noiz izan zenuen haien berri?

Abuztuaren 29an neba atxilotu zutenean. Prentsan irakurri nuen. Nebaren aurpegia ikusi nuen, ezin sinistuta, artean Mazarrónen zeudela uste bainuen. Gero, jakinekua, abokatu bila abiatu nintzen. [José María] Gil-Roblesengana jo genuen, onena garai hartan. Hark, ordea, ezetz, baina Paka Sauquillo, Fernando Salas eta hauen bulegoko telefonoa eman zigun. Abokatu zoragarriak. Beraiek arduratu ziren. Saiatu ziren, baina ez zegoen zer egin. Prest zuten dena. Heriotza zigorra. Epaiaketa ez zen izan simulakroa besterik. Ez ziguten frogarik onartu.

Epaiaketa izan zinen.

Aretotik atera eta, amarekin batera, Madriler-a DG Sera [Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusia] eraman ninduten, atzetik beste auto batzuk zetozela. Gu-rearen atzetik, *Billy el Niñorena*. Atze-



rago, atzerriko prentsa. Eta eskerrak atzerriko kazetariak zetozen. Nik uste haien lekukotasunaren beldur eraman gintuela poliziak hotelera, ni DGSen utzi beharrean... Artean epaiketa aretoan, nebari heriotza zigorra eman ziotenean nik "Luis!" hots egin nuen, eta berak burua jiratu zidan. Orduan, ondoan zuen polizietako batek kazkarreko bat eman zion, aurrera begira zezan. Ni hoska hasi nintzen: "Hiltzaileak, kriminalak!". Aretotik atera ninduten.

Gau-kapera etorri zen gero.

Bai. Humberto Baena ziegan alde batean, neba erdiko ziegan, Ramón [García Sanz] beste aldekoan. Abuztuaren 29an atxilotu zuten José Luis, irailaren 27an fusilatu, eta artean odola egiten zuen txizatan,



belztuta soina, begirada galdua. Txikituta zegoen. Haren emazte Silvia Yeseriaseko (Madril) kartzelan zeukaten, eta handik ekarri zuten. Nebak Silviaren sabela lantzantzen eman zuen gaua, esperoan baitzegoen, lau hilabeteko. Gure familia han zegoen, Baenarena ez zen azken ordu

María Victoria Sánchez-Bravo anaiaren argazkiari begira. Beste argazkian, María Victoria bere amarekin Madril en epaiketa egunetan.

arte iritsi, senideak Vigotik baitzetozkion. Ramón aitazurtza zen eta amaren berririk ez zuten... José Luisekin geunden Silvia, gure ama, nire ahizpa Dolores Fe, neba Manuel Anjel eta bostok, eta banatu egin ginen Baenarekin eta Ramónekin ere egoteko, hauekin abokatua beste inor ez baitzegoen. Ikaragarria izan zen gau-kapera hura. Galiziako kantuak kantatu genituela gogoratzen naiz... Ez diot inori opa. Orain ez dut nahi nire nebaren izena garbitu besterik. Ez zen terrorista, ez zen hiltzailea. Bizi naizen artean esango dut: neba gizon zintzoa zen, gizon ona, zentzuduna.

Lau hilabeteko zegoen José Luisen emazte Silvia. Alaba jaio zen, eta gaur egun Espainiak Herbehereetan, Hagan, duen enbaxadan idazkari da, aitaren memoria-tik aldentuta.

Ez zuen aita ezagutu, jakina. Nire begietako ninia izan zen txikit, nebaren alaba zelako, eta nik seme bi bai baina alabarik ez dudalako izan. Ez dakit Madrileko Frantses Lizeoan jaso duen hezkuntzak ere ez ote duen aitaren iruditik aldentu. 42 urte ditu, eta 18 urte bete eta lizeo amaierako festa egin zutenean utzi nion harekin harremanak izateari. Festa ikusgarria egin zuten Madril-eko Palace hotelean. Hango limusina eta hango Koplowitz-ak. Nire printzipioen kontra zen hura, eta ez nintzen joan. Neskak izena aldatu zuen: Louise Sánchez Rostou ageri da, baina, egiatan, Luisa Ramona Humberta Anjela Juana Sánchez-Bravo Carretero da.

Aitaren izena ez ezik, Humberto Baena-rena, Ramón García Sanzena, Anjel Otaegirena eta Juan Paredes Txiki-ren izenak daramatza.

Esan izan du oso pertsona diskretua dela, egunkariak irainka eraso ziezaioketela. Baliteke, ezagutzen dugu-eta prentsa. Baina min eman zidan ilobak izena aldatzea, eta kito, ez nintzen festa hartara joan. Harrezkero ez dut haren berririk izan.

Hoyo de Manzanaresen, Madrilen, fusilatatu zituzten Humberto Baena, Ramón García Sanz eta zure neba José Luis.

Eta hantxe izan nintzen. Fernando Salas abokatua eta biok fusilamendu lekura-ino abiatu ginen, baina ez ziguten bertaraino joaten utzi. Hala ere, garbi aditu genuen tiro hotsa, barrundatu genituen



Azken hitza: *Billy el Niño*

“Guztiaren gainera, gauza bat azpimarratu behar da: kalean libre dabilen *Billy el Niño* [Antonio González Pacheco, frankismo garaiko polizia, Poliziaren Goi-mailako Kidegoko inspektore Trantsizioan] epailearen aurrera eramane behar dela, justizia egin eta gertatzen zaizkion egunak kartzelan igaro ditzan. 70 urte izango ditu honezkero. Igaro ditzala barruan gertatzen zaizkion urteak”

.....

fusilatuen siluetak. Gero, fusilatze lekutik behera ikusi genituen poliziak, irriz eta karkaila. Ez dakit sustantziaren bat hartua zuten, edo edan zuten, baina pozik zetozen, hala guardia zibilak nola poliziak, exekuzio pelotoiak osatu zituzten boluntarioak. Gorpuak plastikozko poltsan sartzen ari ginenean Fernando Salas eta biok, asto beltzarenak eta

bi esan nizekion sententzia eman zuten epaile militarri. Zuri-zuri zegoen. Haren gustukoa ere ezin izan ikusten ari zena. Prentsari ez zioten igarotzen utzi.

Zure nebaren izena garbitzeaz ari zarela, 2012an Eusko Jaurlaritzak indarkeria politikoaren biktima aitortu zituen Txiki eta Otaegi. Aurten berean, berriz, Kataluniako Parlamentak frankismo garaiko epaiketak ezeztatatu ditu.

Espainian pentsaezina da horrelakorik. PP agintean dagoelarik, pentsatu ere ez. Eta PSOEk agindu duenean ere, zer egin dute, bada? Nik ez dut bataren eta bestearen artean alderik ikusten. Non da diferentzia? Eta zer egin zuten PCEk, zer egin zuten [Santiago] Carrillok eta [Dolores] Ibarrurik? Ahaztu egin behar omen zen. Amnistia denentzat, batzuentzat eta besteentzat. Nire neba torturatu zutenentzat ere bai? Amnistia? Utik! Eta orain zer ari gara ikusten? Eskuin muturra gero baino gero harroago dabilela. Utzi egin dietelako. Estatuaren laguntza dute, prentsarena, eta sistema judizialarena. Hau Espainia da, adiskidea, hau Espainia da. Herri honetan jende askok baztertu gaitu. Gure semeak, besteak beste, Sánchez-Bravo direlako. Gu bizi ginen kalean, Vigon bertan, goian zerua eta behean lurra bizi zen batek ni ikusi eta gogoan dut ondoan zuenari esan ziona: “Begira, terroristaren arrebak!”. Zer jan ez duenak PPri botoa ematen dianak bezala. Zeinek ulertu? Zoraturta gaude. Mundua azpikoz gora dago. Ez dut ulertzen... Aizu, Otaegi fusilatatu zuten, eta bestea? Tiroa jo ziotena? Garmendia zen, ezta?

Bai, Jose Antonio Garmendia Artola.
Gogoratzen naiz... n

ARGIA 2018ko egutegia

Hormak edukiz janzteko.

943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Egutegia

9€

Egurrezko taula egutegia opari

50€

